

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 1848

*EBAZPENA, 2024ko apirilaren 9koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitarata ematen baita Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduak deitutako prozesuan jardungo duten Epaimahaien osaketa (Agindu honen bidez, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin da).*

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen. Agindu horren 8. oinarrian zehaztutakoarekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea ebazpen honen eranskinean Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduran jardun behar duten Epaimahaien osaketa, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lanpostuak modu finkoan betetzeko enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan.

Bigarrena.– Epaimahaietako kideren bat ordezkatu behar izanez gero, horren ordezkari eranskinean azaltzen den hurrenkera bereko ordezkoa izendatuko da, eta hori ezinezkoa bada, hurrengo ordezkoa, agertzen diren hurrenkerari jarraituz.

Hirugarrena.– Agindu honen eranskinean azaltzen diren epaimahaietako kideek ez dute prozeduran parte hartuko, eta Langileak Kudeatzeko zuzendariari horrela jakinaraziko diote frogagirik, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak, 23. artikuluan aurreikusten duen gorabeheraren batean sartuta badaude, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan kategoria berean sartzeko hautaprobetarako izangaiak prestatzen lanik egin izan badute.

Hamar egun naturaleko epea izango da abstenitzea eskatzeko, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Halaber, izangaiak epaimahaietako kideak errefusa ditzakete, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 24. artikuluan aurrez ikusitako baldintzak ematen badira.

Laugarrena.– Interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen horren aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 9a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.

2024ko apirilaren 17a, asteazkena

## ERANSKINA

**Kategoria: Sukaldaria****Titularra****Epaimahaiburua:**

Epelde Murguia, Alicia

**Idazkaria:**

Arrizabalaga Saracibar, Asun

**Epaimahaikideak:**Aguirre Altube, Ane Mireia  
Villanueva Pérez, Ana María  
Cepeda Ocampo, Cesar**Ordezkoa****Epaimahaiburua:**

Lasso de la Vega Martinez, Inmaculada

**Idazkaria:**

Bengoa Iturritxa, Iñaki

**Epaimahaikideak:**Murguialday Chasco, Blanca Gema  
Fernández de Gaceo Ganuza, María Milagros  
González González, Marina**Categoría: Garbitzailea****Titularra****Epaimahaiburua:**

Epelde Murguia, Alicia

**Idazkaria:**

Arrizabalaga Saracibar, Asun

**Epaimahaikideak:**Labaka Pérez, Sara María  
Iturribarria Elejalde, M. Esther  
Cepeda Ocampo, Cesar**Ordezkoa****Epaimahaiburua:**

Lasso de la Vega Martínez, Inmaculada

**Idazkaria:**

Bengoa Iturritxa, Iñaki

**Epaimahaikideak:**Cuesta Figuero, Maria Pilar  
Llona Rementeria, Amaia  
González González, Marina